

# Diskoak

IKER BARANDIARAN

## Gitarrek gidatutako amorrazioa, egiazkoa



**En la zona cero.**  
Vómito.  
Potencial Hardcore.  
Iraupena: 38'10".  
7 euro.

DONOSTIA ETA IRUN ARTEAN kokatutako talde beteteranoak urte askotako etenaldia egin zuen Victor abeslaria hil ostean, nahiz eta apur batean Radio Terror proiektuarekin nolabaiteko jarraipena egin. Azken urteotan baina, berrargitaratutako kanta batzuek jaso zuten harrerak mamua berpiztu eta bueltan ditugu, oso sasoi onean, lehen besteko gaztetasuna eta amorrua barruan dutela. Hala ere, Vomitok ez du disko bera birritan egiten eta taldearen

marka den kutsu ilun eta siniestroak indarrean jarraitzen badu ere, gitarrei are eta garrantzia handiagoa eman diete oraingoan; eta gai izan dira amorrazioz beteriko punk-rockaz gain, rock urbanoa, metala eta ukitu industrialak lantzeko. Hitzetan, berriz, gizakiak bere kabuz lantzen diharduen hondamendia eta norberak daukan alde ilunena, ezkorrena, jorratu dituzte.

[www.myspace.com/vomitosocialsite](http://www.myspace.com/vomitosocialsite)

Claus Groten - **Vómito**

## «Punka batez ere jarrera da: errebeldia eta zure bidea eraikitzea»

Zer helbururekin itzuli da Vomito krimenaren gunera? Gerra ematen jarraitzeko asmoarekin eta jakina, inola ere ez iraganean egingadakoaren truke bizitzeko. Gure helburua ez da inoiz izan orain dela hamabost urteko kantak jotzeko itzultzea. Tartean gaixotasuna, zorigaitza, heriotza eta mina agertu ez balira, Vomitok ez zuen halako etenaldi luzerik egingo.

Krimenaren gunea oso aldatuta aurkitu duzue itzultzerakoan?

Harrigarriena izan da erreferentzia taldea bilakatu garena jakitea. Itzuli ginetik bi urtean 60 kontzertutik gora egin ditugu eta ikaragarria izan da, sinesgaitza. Bestalde, oso garai gogorak bizi ditugu, erdi ezkutuan baina indar-indarrean dagoen faxismoak gidatzen dituenak. Horregatik, gero eta arrazoi gehiago daude bide zuzenetik



aldendu eta sormena erabilia ahalik eta ostia txar handiena ateratzeko. Gaur egun jende asko da horren jakitun, eta edozein eguntan ezinegonak eta frustrazioak bolbora moduan su har dezakete.

Musika estiloei dagokienez, oso irekiak izan zarete beti...

Bai, geldigorak gara eta inoiz ez dugu aurrekoaren disko berdinek

egin nahi izan; horrek neurri batean sailkagaitzak egiten gaitu. Baina beti ahalegintzen gara lan energiko eta intentsuak grabatzen; eta istorioak kontatzeko gure estilo propioa izaten.

Punkak ezinbestean behar du arrisku kutsua, ezta?

Bai, bestela ez litzateke punka izango, beste zerbait izango zen. Estiloari dagokionez, oso irekia da eta horrek aberastu egiten du. Punka batez ere jarra-

ra da: errebeldia eta zure bidea eraikitzea dira ezaugarri nagusienak.

Dagoeneko gazte "nagusitxoak" zarete, baina "suarekin jolasteko gogo" ez zaizue kendu. Zer dauka suak, hain erakargarria izateko?

Berotzen zaitu, iratzartzen zaitu eta bizirik sentiarazten zaitu. Horrez gain, hipnotikoa ere bada eta errespetua ezartzen dizu. ■